

# ...eta Kitto!

1989ko Martxoak / 3. Alea

EIBARKO UDALA. EUSKARA BATZORDEA.

## Eibar maitatzea Garbi mantentzea



Osasuna zaintzeko ingurune publikoa garbia mantentzeko kanpaina orain dela egun batzuk amaitu du Ingurugiro Batzordeak. Kanpainan haurren artean 1.000 bisera eta 1.000 txapel nagusitxoendako, 2.000 boli, 1.700 dado eta 4.000 pegatina txikiendako zabaldu dituzte. Nahiz eta kanpaina haurrei zuzenduta egon, nagusiengan ere oihartzuna izatea espero dute Ingurugirokoek.

Denen artean Eibar garbiago eta osasuntsuago bihurtzeko apostua egin da. Hala bedi, Eibarren premiarik ez da falta eta.

Kanpaina honekin kaleak garbi mantentzeak osasunarentzat daukan garrantziaz kontzientziatu nahi gaituzte. Eta jakin badakienez hezkuntza edo edukazio kontua dela, eskolumeen formazioa lantzerako jo dute eta hauen bitartez gurasoengan eragin zuzena izaten saiatu dira.

Txakurrei buruzko arategi berria ere argitaratu dute. Jabeek heuren txakurrak lotuta eta bozalez atera beharko dituzte. Urteroko bakuna-txapa gainean izan behar dute, amorruren aurkakoa derri-gorrezkoa da eta; triple birika deiturikoa, berriz, gomendatua. Multa batzuk onartu dituzte jarritako arauak betetzen ez dituztenentzako.

Ordenantza eta kanpaina guztiak aprobetxatuz Argatxa aldea izango da aplikatzeko "zona-pilotoa". Bertako jendea zeharo informatuko dute eta gauzak ongi atera ezker Eibarko edozein txokotan aplikatzeko gai izango dira. Ea ba!


Emilio Aiastuik, 1983an, Ingurugiro batzordea martxan jarri zuen 200.000 pezetako presupuestoarekin. Denborarekin jende gehiagok parte hartu du eta gaur egun zerbitzua Administratzailea eta Teknikoak (Ramón Telleria) osatzen dute. Baita ere badago lorazain bat, lehen Zerbitzuetan lan egiten zuena. Lorazain bakarria nahikoa al da Eibar bezelako hiri baterako? Ba, ez! Urte batean pertsona bakoitzeko errendimentua 8.000-10.000 m<sup>2</sup> izaten da, eta Eibarren 48.000 m<sup>2</sup> daude, gainera oso partzela txikitana.

Hauek izaten dira, beste batzuen artean, Batzordeak eten gabe aurrera daramatzan lanak! erreziklajea (bira edo kristala eta papeira), arratoiaren aurkako kanpaina, hondakinen ikerketa, lorategiak mantentzea, gabonetan goroldioa babestea eta pinuen bilketa kanpainiak, ingurugiroa babesteko kanpainiak, mendi errehabilitazioak, hortikulturako eskola eta hemendik urte batzuetara arrain horniketak.

Gainera talde ekologistek diru laguntza bat ematen zaie, adibidez 1988an 100.000 pezeta.


Joan zer urteko Otsailetik Abuztura bitartean aire kontaminatu edo kutsaduraren neurketak egin dira Hospitalean eta Urkizuko eskolan, bakoitzean neurgailuak hilabetez egon direla. Hospitalean kutsadura maila normala izan zen 3 egunetan izan ezik. Egun horietan "Alfa"n labeak garbitu zituzten eta. Urkizuko eskolan ere, kutsadura maila, normalizat jo daiteke, nahiz eta alboko etxeak botatzera koan hautsak igoera demasa egin.

1988ko hasieran ibaira botatzen diren zaborrak eta likidoak kontrolatzeko plan bat osatu zuten. Kutsadura oso altua denez eta instalazioak behar den bezala ipintzea ere oso garestia suertatzen denez, Ingurugirokoek datuen bilketari ekin zioten. Horrela bakoitzak —lantegietako jabeak— jakin dezan ze botatzen duen ibaira eta ea botatako hori berriro aprobetxatu dezakeen ala ez. 1992ra begiratuz produkzio-si tema guztia berrantolatatu beharko da, eta lantegiak bildu beharko dira behar duten tresneria erosteko. Orain lau biologialari tenporalki kontratatuta daude ikerketa sakon hau burutzeko.





# Inguru erdaldunean posible da irakaskuntza euskalduna?



## BALDINTZAK

**E**do beste modu batean esan da, posible al da irakaskuntza euskaraz burutzea, ikasleak jatorriz erdaldunak izanda? Azken batean, "D" eredu erdal giroan aurrera eraman al daiteke?

Bai horixe! Baina horretarako zenbait baldintza betetzen badira ikastetxe barruan.

Hori da Pello Aierbe eta Felix Etxeberriak, Euskal Herriko Unibertsitateko irakaskuntza orain dela guxi Errenteriko Langaitz ikastolako emaitzak aztertu osteko ondorioa, eta primizia gisa Unibertsitatea Laboraleko Jardunaldietan Pello Aierbek aurkeztu ziguna.

Lana burutzeko metodologia zientifikoa erabili dute eta gero beste eskola eta ikastolekin analisi konparatzailea egin dute. Beraz, lan serio eta baliagarria orain arte Euskal Herrian euki dugun inkoznita bat argitu digulako.

Hasieran esan bezala gauzak horrela gertatzeko baldintza edo kondizio batzuek bete beharra dago:

a) Ez dago eskola ideal batean pentsatu beharrik. Giza talde instituzionalizatu guztietan, eskola barnean gorabeherak egongo dira. Irakaskuntza hau giro normal batean posible da.

b) Langaitzeko irakasle guztia euskalduna da eta multzo eder batek urteak daromatza euskarazko irakaskuntzan. Beraz, irakasle euskalduna eta esperientziaduna bada hobe.

c) Gurasoen adostasuna egon da irakaskuntza euskaldunari ekiteko, heuren seme-alabak euskaraz eskolatzeko borondate positiboa agertuz.

d) Ikastetxean irakaskuntza euskara hutsan burutzeko proiektua onartu zen, ikastetxeko partaide guztiek proiektua aurrera ateratzeko borondate osoa adierazi dute beti. Ez da egon inongo ezarpenik.

e) Ikastetxearen barneko funtzionamendua on edo normala euskararen irakaskuntzarako ezinbesteko eta lagungarri bilakatzen da.

Horra hor bada, guraso erdaldunak izanda eta gure Amaña bezalako auzo baten kokatuta dagoen ikastolako gorabeherak labur emanda.

GAIA	MAILA	IKASTOLEN MEDIA	LANGAITZ
Matematika	8.a	24,31	27,94
Esperientzia	8.a	13,13	15,70
Irakurketa	8.a	9,62	10,76

## Emaitzak

Ikasleen emaitzei eta errendimenduari dagokienez beste ikastetxetako ikasleen antzekoak edo hobeak dira orokorrean. Erdararen produkzioan ere ez dute Langaitzeko ikasleek aparteko zailtasunik. (Ikus kuadroa)

## SARIKETA

Ba al dakizu non dagoen argazkian agertzen den irudia? Beno, hori hala bada eta AYERBE LIBURUDENDAK oparitu dituen liburuak irabazi nahi badituzu bidal ezazu eskutiz bat (pertsonako bat onartuko da bakarrik) helbide honetara hilaren 15a baino lehen, zeure datuak eta telefonoa emanetz!

**EIBARKO UDALA EUSKARA ZERBITZUA**  
 "... eta Kitto!" Sariketa.



— Liburu salduenak Otsailean

### EUSKARAZ

- Euskararen auziaz
- Sinonimoen hiztegia
- Obabakoak
- Xanti eta Ane

### ERDARAZ

- La hoguera de las vanidades
- Historia del País Vasco
- Perfiles humanos
- Filomeno a mi pesar

2. aleko sariketaren erantzuna "musikategiaren ondoan dagoen iturria da, Errebal kalean"-zen. Guztira 60 erantzun zuzen jaso ditugu eta irabazlea ANA JESUS URZELAI BENGEOA da, 23 urtetakoa eta Jardinetan bizi dena.

## XII ANTZERKI IHARDUNALDIAK / 1989 Otsaila-Martxoa

EGITURA OROKORRA		PROGRAMA	
Ots. 22	19,30	AURKEZPENA	HIZLARIA: Emilio Gutierrez Caba
UDALETXEAN			
Ots. 23	20,30	Teatro del Alba	"CABARET SHANGAI"
UNIBERTSITATEAN			
Ots. 24	20,30	Teatro del Alba	"SEVERA VIGILANCIA"
UNIBERTSITATEAN			
Ots. 25	20,30	NOLA RAE	"CLASIC"
UNIBERTSITATEAN			
Ots. 27	20,30	DUODENO	"VOYEUR"
UNIBERTSITATEAN			
Ots. 28	22,30	BEGOÑA AUSIN	"BEATRIZ"
LAUREL AND HARDY			
Martx. 1	20,30	ALLEGRO MODERATO	"EL ACOMPAÑAMIENTO"
UNIBERTSITATEAN			
Martx. 2	20,30	BEDEREN BAT	"ERRELEBUA"
UNIBERTSITATEAN			
Martx. 3	22,30	MIMO PLOT	"PANTOCIRCUS"
TAS-TASen			
Martx. 4	20,30	JACHAS	"LOS PELOPIDAS"
UNIBERTSITATEAN			
Martx. 6	20,30	PEP BOU	"BUFAPLANETES"
UNIBERTSITATEAN			
Martx. 7	22,30	EDURNE URIARTE	"EL DESPERTAR"
KATU-KALEan			
Martx. 8	20,30	UR	"REMORA"
UNIBERTSITATEAN			
Martx. 9	20,30	Teatro Corsario	"PASION"
UNIBERTSITATEAN			
Martx. 10	20,30	DAR-DAR	"EL ESPECTACULINO"
UNIBERTSITATEAN			
Martx. 13	20,30	NARRUZKO ZEZEN	"BALADA DE LOS TRES INOCENTES"
UNIBERTSITATEAN			
Martx. 14	22,30	MIMO PLOT	"PANTOCIRCUS"
HILBERAn			
Martx. 15	20,30	ARENA TEATRO	"FASE 1º USOS"
UNIBERTSITATEAN			
Martx. 15	23,30	DOMESTICOS	"ONEMANSHOW"
PUNTO Y APARTE.			

## IRAKURLEAREN TXOKOA

... eta Kitto-ko erredakzioa

Lagunok: Zorionak lehenengo eta behin "... eta Kitto" aldizkari labur baina atseginatik. Ea beste ehunen bat urtez jarraitzeko modua egiten duzun. Edukiari buruz oso ondo elkarrizketak eta testu motzak.

Zer esanik ez eibartarrez —Eibarko euskararik onena zalantzarik gabe barneratzen duzuenagatik. Segi horrela eta hobeto!

Soil-soilik galdera bat amaitzeko, marrokiarrei zuzen diezaiezen: ea noiz arte emakumea bazterturik izan behar duten. Izan ere bi aldiz "semeak", semei irakurtzen bait da. Azkenean "seme-alabak" agertzen bada ere.

Islam-ek irakaspenak egunera jartzeko sasoiak ez ote dute ba?

Dirudienez aurrerapen guztiak bizitza errazteko asmatuak izan ziren baina, erabili ahala kalte ere egin digutela ikusi dugu. Dena dela, gu ados gaudere aurrerapenekin, baina, hobekuntza handia behar dute eta ea kaltegarri edo onuragarria den jakiteko, beren ondorioak ez sufritzeko, praktikan jarri baino lehen, sakon aztertu beharko lirtekela uste dugu.

Pentsa ezazue hauetaz: Energia nuklearra, lan-txetako kutsadura, kotxea eta abarretza.

Azkenez esan nahi dugu, aurrerapen asko ez direla gu pentsakerarako beharrezkoak. Dena den guk erabiltzen dugu, baina badirudi bereziki asmatzaile eta fabrikanteak aberasteko balio dutela.

A.E.K., 5. urratsa

Akondiako EGABERIA

### KAIXO LAGUNOK

Aurrerapenei buruzko eritzi batzuk

Mundua nola dagoen ikusi eta gero pentsatu dugu ea merezi duen hainbeste aurrerapen asmatzeak.

Egunetik egunera ikusten dugu, nahiz eta aurrerapen batzuk zerbitzu onak eman, ondorio txarrak ere ekartzen dizkigutela. Esate baterako, igongailuaren kasua, nork ez du ikusi igongailua izan baino lehen etxepeko harremanak nolakoak ziren eta, igongailua jarri eta gero, zenbat hoztu diren?

... eta Kitto! bigarren alean poz handiaz irakurri dugu gure taldeko ikaskide bat lehenengo sariketan irabazte suertatu dela.

Ale hauek erraz eskuratzen direnez, espero dugu zuen ideia honek iraupen luzea izango duela, gure ustez lagungarria da Eibarren euskara bultzatzeko.

Eskerrik asko eta beste bat arte.

Esteban Hernando eta talde osoa

## MATXARIOK



## PATXARA



## DARIO !!





# Ramon: Euskeria eta musikia bere bihotzian

Ramon Sarasua musikuen familixa batetan jaixotakua da. Bere osaba Juan Bautista Guisasaola dogu, konpositoria izandakua; gaur Eibarren dauan konserbatorixuak bere izena darioa. Familixan lau anaiek ikasi eben musikia, baiña bik bakarrik segidu eben: Antonio anaia nagusixak eta Ramonek.



- Konpositore familixatik afiziñuagaitxik konpositore.
- Langile fiña eta euskarazale amorratua.
- Eibarko musika zalia: "Sostoa" poz haundixa izan da berarendako.
- Liburu bat idatzia daka Eibarko musikaz, ondiñok publikau barik.

Ramon osaba Guisasaolakin Orfeo Eibartarian egon zan eta geruau nesken koru bat formau eban Goiari izenekua. Bere anekdota edo kontu benetako batean esan dosku: "1942 edo 1943-an izango zan udaletxetik deitxu zestenian —La Navidad del Pobre— edo Caritas-ekua eñ bihar zala ta neri zeozer asmatzeko esan zesten bandiak in urten bihar zala ta. Nik formau neban grupua, asko giñan neska ta mutillen artian: larogei bat edo ta danok baserritar: jantzitza juañ bihar gendun; bandia, korua, ta Olentzerua be euazan. Neu be juañ nitzan musikako akademixara baserritar jantzitza ta zain, ta zain, ta zain, ta ez eban urtetzen kabal-gatorrek edo zerorrek, ta musikauk ta bandakuak zaharrak zittuan: eta —Hi! Zer pasatzen dok hemen! ... ixa zazpirak ditxuk eta sei txerdietan esaezkuek urtetzeko ta... —Ah!... etxakixat nik, hemen ordenak dauazek, ayuntamentu-kuak esango dabela noiz urtean. Ta halakoren baten etorri jatan bat errekadista modura ayuntamentutik eta: juateko plenuetako lekura. Juan kristan hara eta han hartu niñuen ba, kristanak esaten!!: bandera españoliakin ez ba genduan urtetzen ez ebalu urtengo kabal-gatiak edo Olentzeru orrek esan zesten, ta nik esan nentsan: —bueno baña... neri ze esateztazue, elixiak deitxu desta neri ta ni hemen ensaiuetan hille t'erdixan egon nok eta... Ta amorrua emon zestan—. Bajatu nitzan ta han nekazan behian arkuetan danak, larogeixak, espektatiban euazen zer pasatzen ete zan ta esan eusten hauxe: —ta Ramon, zer eñ biajuau ba...? —Ta nik eantzun: —nik erabakixa hartuauat nik zer eñ bioten-ta juañ eñ nitzan eta bestiek be bardiña eñ zebien. Horregaitxik bandiak ta Olentzeruak bakarrik urten eben. Ta gabon urrenge egunian uga-zabak esan zestan: —poliziakuetatik zera daok: deima daok—. Denuntzixa baten telegrafia zan. Baiña azkenian konpondu ziran gauzak jefe polizikua Eibartar batekin ezkondu zanian, orduan historixioro bertan behera gelditxu zan.

Ramonen osaba zan Guisasaolak "Koral Eibartarra" sortu eban bere

anaia Antonio zuzendari izan zalarik eta Ramon bera subdirektore. Ramon gerotxuau "Koru parrokiarian" musika asuntuakin hasi zan eta ondiokan be segitzen dau; honek koruonek bada-roiaz bizirik 80 urte inguru. Berak daroian korua gizonena da. Baiña Donostian hiru bider kantau dabe: Alfako umiekin, Merzedarixak eta Aldatsuekuekin be bai. Bere kantuen artian "Aurtxo kanta" da bozetara eindako kanta exitosuenetako bat, eta berak diñenez: "horrek bai, onena horretxek urten eztan".

1964-an Juanito San Martiñek Banco San Sebastianen enkarguz liburu bat idazteko eskatu eutsan Ramoni Eibarko musikia eta musikuei buruz. Ramonek eñ eban liburu baiña ondiokan publikatu barik dao, eta horrek badaka esplikaziño sozio-ekonomikua. Ramonek eñ bihar zeban liburuan beste liburu bilduma bat be bazoian harekin batera eta bertan estudio sozio-ekonomiko bat zeuan; han Eibarko enpresari on batzuen semiek zelan porrot eñ zeben agertzen zan eta Banco San Sebastiani (gaurko Hispano americano delakua) ez jakon gustau haren izenak han agertzerik; horregaitxik ez zian horrek liburuok publikau. Hala izan arren guk pentsetan dogu ez zala txarra izango beste batenbatek hori liburuoir argitara etarako baleuke, ze bertan agertzen diran eibartar konpositorien izenak eta bizitzak, Eibarki buruzko anekdota batzuk, eta bestelako gauza batzuk be bai oso interesantiak dirala uste dogu gure herrixa hobeto ezagutuzeko, eta baita be bai kontuan jausteko jente famosua eta artistia dana bertan herrixan dakagula eta ez dakagula zetan urriñera juañ biharrik. Ramonek diñozkunez hori liburuoir ondiñok gehixao kompletau leike, horrek esan nahi dau Eibarren ondiokan ezagutzen ez dirazen fenomenauk dauazela. Baita be Ramonek diñozkunez berak poz ikaragarria hartu dau Eibarren ondiokan ezagutzen ez dirazen fenomenauk dauazela. Baita be Ramonek diñozkunez berak poz ikaragarria hartu dau Eibarren "Sostoa" talde koral sortu zanetik, ze Eibarren "Koral Eibartarra" desagertu eta gero bihar eban beste talderen bat: berak diñenez: "Eibarren holakuak bihar dira"

1952-an Bizikleta Eibarresa sortu eben eta Ramon izan zan bertako presidentia zortzi urtetan bere fundaziñua izan zanetik.

Esan bihar dogu "euskerazale amorratua" dugula Ramon, berak diñenez: —ni euskera zalia naiz "por inercia" esaten dana—. Eibarko euskera aberatsa da oso. Gertatzen dana da gauza asko modidarez esaten dirala esa ten dian moduan.

Eibartarrak nahiz ta euskera ezberdiña izan ulertu eitzen ditzuz beste lekuetako euskalkixak. Nik txistete modura beti esan dot eibartarragaitxik (diñosku): "eibartarra ez dok Euskadiko Ezkerreku; zer ba? —sekula etxok esaten: eh? eh?—".

Baiña kontuak kontu generaziño batetik bestera txartotzen jun da gauzia.

Eibarren egon dira hitzak "ikusgarrixak", baiña etorri zaigu erbesteko jende larregi edo... bihar zana edo... ta horrek be asko galdu esaiñ dau gure herriko euskera.

Eibarko beste fenomenu bat euskeran "hiketa" edo hika berba eitxia da, horo oso zailla da. Baita egon da eibartarren tradiziñuan fabriketako piezei ta, izenak ipintzekua, hori ez zan beste leku batzutan ezagutzen. Gauza honek danok kontuan hartuta esan bihar da Eibarren ondo eitzen zala euskeraz. Oñi be euskerazaliak diranak eitzen dabez ahalegiñak gauza horrek mantentzeko, horretan gogor ekiten dau Ramonek. Berak diñoskun moduan: "gauza horretanuranixuakin moduan gertatzen da, zeozer ona topatzeko mendi osua aztertu bihar dala".

— Aroteko Amara — Gicardeta tar Yen



# Aisialdia edo denbora librea Eibarren

**A**ukeratu behar bagenu nor den bere menpe jende gehien duen tiranoa, kandidatu egokiena erlojua litzateke. Ordutegiekiko gure dependentsia hain handia izanik ere, gure denbora guztia neurtua dagoenetik, logikoa izango litzateke hauxe pentsatzea: behin atsedena lortuz, gure denbora bendizio bat bihurtuko litzatekeela gustora disfrutatzen jakingo bagenu. Baina ez da horrela gertatzen. Autobus tiranoen artetik egunero bulegoan fitxatzea, eta gehiago produzitzeko gero eta bizkorrago egiten ditugu gure ekintza guztiak. Eta bapatean desolaturik aurki gaitezke; zer dugu egiteko? Denbora gainera datorrigu eta minutuak astiro, astiro, igarotzen doaz. Bakardatea gainetik kentzea nahi dugu, baina ez dakigu nola egin. Ahaztu dugu asti-librearen kultura!

Diotenez, Greba Orokorren egunean Estatu osoa egun guztia bideo-klub batean bilakatu zen. Bideo saltzaileak zuten guztia saldu-alokatu zuten. Egun honetan, beste urteetan gertatutakoaren alde-

rantzizkoa gertatu zen, jende guztia etxean geratu zen. Bapatean egun huts baten aurrean jarri gintzuten. 24 ordu inongo betekizunik gabe, egun guztia nahi genuena egiteko. Nahi genituen dibertsioak eratu ahal izan genituen. Lagunak deitu eta hitzegin, edozein liburu irakurri... paseatu. Baina hala ere, eta ezingo nuke, zergaitia zein den adierazi ia denok erabaki genuen bakarkako "plazerra", hau da, orduak eta orduak bideoaren aurrean pasatzea. Kontsumo merkea, pasiboa, partizipaziorik eskatzen ez duena. Behar bada ez gara atrebitzen gure buruarekin bakarrik egoten; ezta ere pasibitatea hausten eta gure inkiertudeak desaroilatzten.

Zer egiten dugu Eibarren zeregin ofizialik ez dugunean. Egia esateko eskaintzen diguten —edo eskaintzen dugun aukera ez da oso al-dakorra. Zinemak, tabernak eta diskotekak dira aurrean ditugun aste-bukaeratako eskaintza beharrak.

## ZEREN BEHARRA IKUSTEN DUZU AISIALDIA APROBETXATZEKO EIBARREN?

### ZER EGITEN DUZU DENBORA LIBREAN?

**TXOMIN IRISARRI, 29 urte**  
langabezia, bizitza bizitzen

Mendira joaten naiz, kalean "de puta madre" pas-tu lagunekin. Niretzako era guztietako aktibitateak falta dira; dagoena garestia da, gutxi da eta gainera gaizki antolatua.



**MARCOS CARRACEDO**

78 urte, jubilatua. Bestea "Segobianoa"

Biak keajaten dira parkeak ipintzen dituztelako. Beraien hitzetan "no hay mejor satisfacción que la que no se da". Bat Segobiara joan nahi duela dio, hemengo zaharren residentzian ez dago oso gusto-ra.




**ESTHER ZARRAUA, 21 urte**  
unibertsitaria

Gustatuko jatan kultur rolloak, zinea, antzerkia... baina gero ez dakit partizipaziñoa egongo zenik ala ez. Nik orain esaten dut baina alperkeriagatik ere igual kalean geratuko nintzake. Euskal Herria ezagutzeko bidai batzuk gustokoak izango nituzke, herri desberdinak ezagutzeko aukera bat, ez bakarrik mendi-irteerak.



**LARRAITZ ARAKISTAIN, 16 urte**  
Instituan B.B.B. ko 3. na

Buelta bat eman kaletik, tabernatan egon... Kirola oso gutxi egiten dut, noizean behin mendira joaten naiz. Kontzertuak botatzen ditut faltan herri honetan.



**I.Z., 55 urte**  
teknikoa

Ez dut denbora librerik. Zerbait dudanean musika entzun, egunkaria irakurri eta mendira joaten rala-jatzen naiz. Nire andrearekin joaten naiz eta jenderik ez dagoen tokietara joaten gara. Gazteak nahi badute badute tabernetatik kanpo beste aukera batzuk, baina kalean egotea nahiago dute.

**I.U., 50 urte**  
neskamea

Astia dudanean menditik pasiatzen dut gizonakin, horrela astelehena hobetoago sentitzen naiz. Gazteentzako ez dut uste gauza larregirik daudenik tabernetatik aparte. Korola egitea oso garrantzitsua da gazteentzako, baina garestitua da beraien poltsikoetarako. Mendira joaten direnean askoz ere hobetoago ikusten dira, baina kalean geratzea errezago zaie.



**SILBIA, GOIZANE eta ANA.**  
15 eta 14 urte, La Mercedeko ikasleak

Gure mutilekin ibiltzen gara, Untzagako salan egon, erre eta kalimotxo edaten dugu. Berbenak nahi ditugu. Orain ia ez gara pisinetara joaten, pasatzen dugu.



## AGENDA

### ARGAZKI ERAKUSKETAK

#### CLUB DEPORTIBOAK ANTOLATURIK

— OTSAILAREN 20tik-MAITZAREN 2ra: "Kaja Laboral"eko erakustokian. Jose Luis Irigoienek Argazkiak.

— MARTXOAREN 18tik-30era: Udaletxeko Kultur Aretoan. Julio Lopez Sogar (Alcorcon-Madrid).

— MARTXOAREN 28tik-APRILAREN 5era "Kaja Laboral"ean BIHOTZ-GAZTEA KOLEKTIBOA (Santurtzi)

#### KULTURA SAILA

Martxoan

3tik-15rarte: Udaletxeko Kultur Aretoan. Fernando Beorlegiren erakusketa. PINTURA.

17an: Arratsaldeko 9,30etan. Kontserbatorioan. ARRASATE MUSIKALaren kontzertua.

#### EMAKUMEEN ASANBLADA

Martxoan

3an: HITZALDIA. Gaur egungo gai bat emakumeari buruz. Udaletxean. Arrats. 7,30etan.

4an: ANTZERKIA. Itziar Lazkano (Karraka) DULCE PUTA obrarekin. KULTURALEAN. gaueko 10,30etan.

8an: HITZALDIA. GAIA: FEMINISMOA. Institutoan. Goiz. 11etan.

10ean: PELIKULA. Rialto Zineman. "BENILE" Manuel Oliveira. (Portugal). Eibarko Zine Klubaren laguntzaz.

#### UDALEKO EMAKUMEAREN SAILA

Martxoako ekintzak

3tik-10ra: ERAKUSKETA. EMAKUMEEK EGINDAKO ARTEA. Zeramika, Pintura, e.a. KAJA LABORALEAN.

7an: EMAKUMEEN ARTEKO FUTBOL PARTIDOA. GIPUZKOAKO KOPA. URKI FUTBOL TALDEA.

8an: KONTZERTUA. KONTZERBATORIOAN. Maruxa Llorente. 8,30etan.

#### ZINEA

Martxoan

UNIBERTSITATE LABORALEKO ZINE-KLUBA. 5,30etan eta 8,30etan.

7an: Perfume de Mujer. Dino Rissirena.

14an: La casa de Bernarda Alba. Mario Camusean.

EIBARKO ZINE-KLUBA: Rialto Zineman. Gaueko 10,30etan

3an: YELEN. (Argia) —Soleymane Cisse. (República Mali)

10an: "Emakumeen Asanblada"rena begiratu.

27an: Los sobornados. Fritz Lang.

31an: Bajo el peso de la Ley. Jim Jarmuth.

#### KIROL ARLOA

Martxoan

ESKI IRTEERAK: CLUB DEPORTIBO

4 - 5an. CAUTERETS-era

11a - 12an. FORMIGALera

18 - 19an. CAUTERETS-ERA

ASTE SANTUAN. 24tik-27ra. PIRINEOETARA

INFORMAZIO GEHIAGO 71 19 04. Telef. ESKI SAILA. Club Deport.

## NORK

## ZER

• KOORDINATZAILEA:  
Fernando Muniozguren

• ERREDAKZIO TALDEA:  
Ana Aizpurua  
Idoia Arrillaga  
Mireia Ugarteburu  
Idoia Irazola  
Fernando Muniozguren

• ARGAZKILARIAK:  
Iñigo Martín Santos  
Mikel Gorosabel

• MAKETAZIOA:  
José M. Valderrey

• MARRAZKILARIA:  
Leire Astigarraga

• INPRIMAKETA ETA FOTOKONPOSAKETA:  
ANTZA